

Askatasunetik iheska

Laburpena

Ikasgaia: Gizarte Psikologia

Ikaslea: **Iker Iraola Arretxe**

Soziologia, 3. maila

2004ko urtarrilaren 23a

1. Abiapuntua

Lan hau Erich Fromm-en *El miedo a la libertad*¹ liburuaren laburpen bat da. Obra honen jatorrizko bertsioa 1941ean, II. Mundu Gerra abian zegoenean, argitaratu zen. Garai hartan, beraz, argi zegoen gizartea krisi larrian zegoela. Arazo honetan oinarriturik, faxismoa bereziki aztertzen du, zeinaren oinarrian, Frommen aburuz, gizakiaren askatasunaren arazoa dagoen. Faxismoarekin batera, *gizarte demokratikoak* deitzen ditugunak ere aztertzen ditu, bertan ere gizakiaren askatasuna zalantzan ikusten baitu (gizakiaren estandarizazioa, hain zuzen). Frommentzat, aipatutako bi egoeren iturburua askatasunaren aferan bilatu beharra dago; honetarako arazo honen azterketa sakona burutzen du, kapitalismoaren hasieratik gizarte demokratikoetaraino. Laburpen honetan hasierako aspektu hauek oso gainetik azalduko dira; Frommen bi tesi nagusiak (faxismoari eta gizarte demokratikoei dagozkienak) azalduko dira bereziki.

2. Frommen tesiaren oinarria

Frommek bere analisia askatasunaren inguruan psikologiatik burutu diren ikuspegi desberdinekin hasten du. Bere aburuz, askatasuna arazo psikologikotzat ulertu behar dugu. Liburu osoan defendatzen duen tesiaren arabera, askatasuna positiboa da gizakiarentzat, bere aukerak, pentsatzeko gaitasuna, etab. hobetzen dituen heinean. Baina, honekin batera, askatasunak alde negatiborik ere badu. Askatasuna, gizarte loturen hausturarekin batera ematen bada, gizakia bakartasunean, isolamenduan eta, finean, beldurran itotzen du. Ideia honetan oinarrituta, Frommek gizakiaren askatasunaren ikuspuntutik, azterketa historiko sakon eta konplexua burutzen du. Bepizkunde garaian ekiten dio azterketari, Erdi Aroarekiko ematen den haustura aztertuz. Frommen ustez, gizakiak Erdi Aroko indibiduoaren ezeztapena gainditu zuen, baina honekin batera, lotura sozial ugari ere galdu zituen, gizakiaren baitan halako urduritasun bat sortuz. Baina Frommek bereziki Erreformaren garaia aztertzen du, beti ere bere inplikazio psikologikoak azpimarratuz. Asko laburtuz, Erreforma garaiko klase ertainaren ezaugarri psikologiko nagusia etsaitasuna izan zen. Hostilitate hau Calvino eta Luteroren doktrinatan oinarritu zen:

“Lutero y Calvino representan la hostilidad que todo lo penetra (...). La baja clase media expresaba este sentimiento también en las relaciones con los demás, mediante la indignación moral (...). Otra manera de manifestar la hostilidad fue dirigirla hacia uno mismo”²

¹ Fromm, Erich, *El miedo a la libertad*, Bartzelona, Paidós, 1998.

² *Op. cit.*, 106-107. or.

Erreforma garaian sortutako doktrina protestante hauek gizakiaren berezko izaera gaiztoa azpimarratzen zuten. Honen aurrean, luteranismo zein kalbinismoak autoumiliazioa eta degradazioa bultzatzen zituen, bertuterako bide bezala. Indignazio moralak, ildo honetan, klase ertainak bere hostilitatea bideratzeko zuen bitartekoa zen, zeinaren bitartez baliabide material hobeak zituztenekiko sentitzen zuen inbidia estaltzen baitzuen. Ondorioz, protestantismoak –katolizismoarekin alderatuz– zekarren askatasuna gizabanakoa isolatuago eta bakartiago utzi zuen.

Bere azterketa historikoan aurrera eginez, Frommek kapitalismoak (zeina protestantismoak zabalduzako balioekin erlazio handia duen, dakigun bezala) sortutako egoera aztertzen du: askatasunaren erabateko anbigutasuna. Kapitalismoaren ekoizpen ereduak, gizakia helburu ekonomikoen bitarteko –tresna– soil bat bilakatu duen heinean, gizakiaren baitan aszetismoaren izpiritua eta huskeria [*insignificancia*] sentimendua areagotu du. Horrela, protestantismoaren askatasunari kapitalismoaren askatasuna gehituz, gizakiaren isolamendua areagotu besterik ez da egin Frommen iritziz. Orduan, aipatutako askatasunaren anbigutasuna era argi batean ikusten da:

_____Askatasun positiboa: giza autonomia eta giza duintasun kontzeptuetan laburtu dezakeguna.

_____Askatasun negatiboa: lotura tradizionaletikiko askatasunean, hausturan, laburtu dezakeguna. Puntu honetan, Frommek *libertad de-z* hitz egiten du.

Askatasun negatibo hau kapitalismoaren garapenarekin areagotzen da. Propagandak (dela komertziala dela politikoa) huskeria sentipenean sakontzen du, baita langabeziari zaion beldurrak ere; eta honek, era berean, izu berri bat sortu du, zahartzaroarekiko beldurra. Frommek gerra ere azpimarratzen du, gerra eredu berri eta masiboek (kontuan izan behar dugu liburu hau II. Mundu Gerraren garaian idatzi zuela) gizakiaren izu sentimendua areagotzen baitute. Frommek elementu gehiago ere aipatzen ditu:

La inmensidad de las ciudades, en las que el individuo se pierde, los edificios altos como montañas, el incesante bombardeo acústico de la radio, los grandes titulares periodísticos, que cambian tres veces al día y dejan en la incertidumbre acerca de lo que debe considerarse realmente importante (...) todos estos y muchos otros detalles expresan una peculiar constelación en la que el individuo se ve enfrentado por un mundo de dimensiones que escapan a su fiscalización, y en comparación al cual él, no constituye sino una pequeña partícula.³

³ *Op. cit.*, 138. or.

Baina gizakiak ezin du beldurrarekin bizi, distrakzioak behar ditu, beldur horretatik ihes egin behar du. Hau ihesbide edo ebasio mekanismoen bidez egiten du gizakiak. Frommek mekanismo hauei garrantzi berezia ematen die bere azalpenean.

3. Ihesbide mekanismoak

Hiru ihesbide mekanismo azaltzen ditu: autoritarismoa, suntsikortasuna eta konformitate automatikoa. Frommek lehena azpimarratzen du bereziki bere azalpena argudiatzerako garaian.

1. Autoritarismoa

Mekanismo hau ondokoa da: ni indibiduala ahula izatearen ondorioz, norberatik at dagoen zerbaitekin batzea berezko ni indibiduala abandonatuz. Ildo honetan, sadomasokismoaren azterketa sakona burutzen du Frommek. Bai sadismoa eta baita masokismoa ere gizabanakoaren bakartasun eta inpotentzia sentimenduetatik ihes egiteko saioak dira. Masokistak gaizki tratatuko duen norbait behar duen bezala, sadikoak ere objektuarekiko dependentzia dauka. Horrela, bi funtzio desberdin egozten dizkie Frommek jarrera sadomasokistei:

- Askatasunaren karga astuna gaineratik kentzea, jarrera irrazional baten bidez.
- Handiagoa den zerbaiten parte bilakatzea, segurtasuna lortuz eta duda ezatseginak gaindituz.

Ondorioz, sadismoaren eta masokismoaren arteko harremana segurua ez den ni-tik ihes egitean datza.

Sadomasokismoarekin batera, Frommek **izaera autoritarioa** aztertzen du. Horrela, honen ezaugarri nagusia bizitza ni indibidualetik at dagoen zerbaitek gidatzen duela pentsatzea da. Behar hau islatzen duen figurari *laguntzaile magikoa* deitzen dio.

2. Suntsikortasuna

Sakomasokismoa aktibotasun nahiz pasibotasunean oinarritzen den bitartean, suntsikortasunaren muina objektuaren eliminazioa da, suntsiketa bera ekintza bezala. Honen xedea aurrekoaren berdina da, ni indibidualaren askatasunak berarekin dakartzan arrisku eta zalantzetatik ihes egitea, honetarako kanpoko mehatxua deuseztatuz.

3. Konformitate automatikoa

Mekanismo hau gizarte modernoetako gizabanako “normalen” gehiengoak bereganatutako soluzioa da. Pauta kulturelek eskaintzen dioten pertsonalitate eredu bereganatzen du gizabanakoak eta, azkenean, besteen berdina den izaki batean bihurtzen

da. Estandarizazio honengatik ordaintzen dena oso garestia da: pertsonalitate propioaren galera. Mekanismo honen azterketan, umeetatik pairatzen den errepresioa aztertzen du Frommek. Finean, ni originala sasi-ni batek ordezkatzeko du, pertsona segurtasunik gabeko egoera batean murgilduz.

Frommentzat autoritarismoa Alemaniako nazismoan nagusi den mekanismo psikologikoa den bitartean, konformitate automatiko hau gizarte moderno edo demokratikoen oinarri da, pertsonak automatak bihurtuz. Jarraian, liburuaren gakoa diren bi kasu hauei buruz Frommek burutzen duen analisia azalduko dut, beti ere puntu honetako ihesbide mekanismoetan oinarritutako azalpena dela ahaztu gabe.

4. Nazismoaren psikologia

Nazismoaren psikologia azaltzeko orduan, Frommek faxismoaren giza oinarria eta izaera autoritarioaren egitura desberdintzen ditu.

1. Nazismoaren giza oinarria

Lehenik eta behin, nazismoaren kausa sozioekonomikoak aipatzen ditu Frommek, kausa hauek faktore psikologikoetan eragin handia baitute. Horrela, nazismoaren jarraitzaile sutsuak merkatari txikiak, artisauak eta enplegatuak izango dira; eta talde hauetako gazteenak batez ere. Langileriak eta burgesia liberal katolikoak, aldiz, erresignazioz edota indeferentziaz hartuko dute faxistak boterera iristea. Krisi ekonomiko eta politiko desberdinen eraginez, klase ertain baxuak pairatzen zuen egoerarik okerrera, eta promozio sozialerako bide egokia (bakarra) bihurtu zen hauentzat nazionalsozialista bilakatzea, sortuko zen burokrazia berriaren parte izanez. Gainera, momentu horretara arte klase honek bere burua identifikatzen zuen instituzioak (monarkia, Reich-a...) erori egin ziren. Beraz, beraien klasearen dekadentzia nazioarenarekin identifikatu zuten; beren salbazio propiorako aberriaren salbazioa bilatuz.

2. Izaera autoritarioa

Frommek, Hitlerren eta Goebbelsen idatzietan oinarrituz, nazien ideologiaren aspektu sadomasokistak agerian uzten ditu. Horrela, *Mein Kampf*-en pasarte desberdinetan elite naziak bilatzen duen botere sadikoa ikus daiteke. Zuzen zuzenean onartzen dute boterea nahi dutela, boterearekin –era krudel batean gainera– gozatzen dutela. Menerapen mundiala ere bilatzen dutela aitortzen dute. Hala ere, masek ere bere dosi sadiko propioa izango dute: juduak, ijitoak, etsai ideologikoak... masa alemaniarren gogo sadikoak

asetzeko erabiliko dira. Ideologia nazian boteretsuarekiko maitasuna eta ahularekiko gorrotoa elementu zentrala da.

Honekin batera, elementu masokistak ere ugariak dira idatzi nazietan. Masari dagokionez, argi dago, erabateko sumisioa erakutsi beharko dute liderrarekiko. Goebbelsen hitzetan, “*ser socialista –nazismoaren zentzuan noski– significa someter el yo al tú; el socialismo representa el sacrificio del individuo al todo*”⁴. Hitlerrek bere buruari buruz, era berean, elementu masokistak ere erakusten ditu, etenik gabe botere ahalguztidun batez (Jainkoa, Probidentzia, Historia eta Natura) mintzo baita.

5. Arazoak gizarte modernoetan ere bai

Askatasunaren arazo hau ez du faxismora mugatzen Frommek. Bere ustez erregimen hauetan izaera autoritarioa da nagusi, baina gizarte moderno edo demokratikoek ere arazo larriak dituzte askatasuna eta gizabanakoa dikotomian. Bertan gizabanakoak izaera propioa galdu eta automata batean bilakatu da askatasunaren izenean.

Konformismo konpultsiboaren azterketan, elementu desberdinak ikutzen ditu:

1. Sentimenduak

Gai honetan errepresioa da nagusi umetatik. Horrela, gizakiek sasi-sentimenduak dituzte, bat bateko sentipenez urruti. Ildo honetan, tragikotasunaren sentipena debekaturik dago: “*nuestra época se limita simplemente a negar la muerte y, con ella, un aspecto fundamental de la vida*”⁵.

2. Pentsamenduak

Ez dago pentsamendu originalik, buruak prestatutako pentsamenduz beteak ditugu. Hiru aspektutan ikusten da pentsamendu originalaren gabezia hau:

- Sozializazioak (etxean, eskolan...) pentsamendu propioa ukatzen die umeei.
- Kulturaren funtzioa gauzak nahastea da. Giza arazoak hain dira problematikoak, ezen espezialistek soilik hartu baitezakete esku.
- Munduaren edozein irudikapen egituraturen suntsipena. Irratiak, zinemak eta prentsak laguntzen dute prozesu honetan, gertaera desberdinak bata bestearen segidan inolako logikarik gabe botaz.

3. Borondatea

⁴ Goebbels, Michael; *El miedo a la libertad*-en aipatua, 225. or.

⁵ Fromm, *op. cit.*, 236. or.

Frommen ustez, pentsamenduekin esandakoak borondateari aplikatu dakioke: “*El hombre moderno vive bajo la ilusión de saber lo que quiere, cuando, en realidad, desea únicamente lo que se supone (socialmente) ha de desear*”⁶.

Ondorioz, identitatearen galerak, ni indibidualaren galerak, konformismoaren beharra pizten du gizakiarengan. Honekin batera, gizarte modernoetako gizakiez Frommek egiten duen irudikapen ilun honen eraginez –gizabanakoa automata bezala definituz–, faxismora heltzeko atak irekiak daude.

6. Alternatibak

Erich Frommek bai faxismoaren izaera autoritarioaren eta bai demokraziek dakarten gizakiaren estandarizazioaren aurrean ere, alternatiba gisa gizabanakoaren bat bateko ekimena azpimarratzen du. Ekintza espontaneo honen adibidetzat artista edota iraultzailea hartzen ditu. Bere iritziz, bat bateko aktibitatearen bidez gizabanakoak bere loturak eskuratuko ditu, borondate propio eta askea aurrera eramanez eta pertsonalitate propioa onartuz. Ildo honetan, ni indibidualaren gainetik ezer ez dagoela eta bizitzaren zentzua bizitzea dela baieztatzen du.

Maila makro batean, Frommek *sozialismo demokratikoa* deritzonaren alde egiten du; hau da, gizabanakoaren eskubideak eta ordezkagarritasuna defendatuko dituen sistema, baina arlo ekonomikoan mugak jarritz planifikazioaren bidez.

7. Azkenik

Frommek *El miedo a la libertad* liburuan gizabanakoa eta askatasunaren arteko erlazio gatazkatsua ulertzeko aspektu garrantzitsuak argitzen ditu. Klasean emandako eragin sozialaren elementuek (konformitatea, sumisioa eta obedientzia) eragin handia dute, batez ere Frommek Alemania naziaren aspektu psikologikoez egiten duen azterketan. Honekin batera, Frommek azterketa interesgarria egiten ditu soziologiaren ikuspuntutik, aspektu psikologiko eta sozialak etengabe erlazionatzen baititu.

⁶ *Op. cit.*, 242. or.